

**G**enero honen barruan espezierik adierazgarriena da, dudarik gabe, oraingo honetan aztergai dugun betibizi horia. 20 espezie inguru ezagutzen dira. Hauetariko 3

J. Terés



Euskal Herrian daude, bat jatorriz Afrikakoa izanik (*H. orbiculare* izenekoa).

Betibizi horia belarki edo mulua da, zurezko zurtoinak dituena. 0,5 metroko altuera izan dezake, tentea edo dekurren-

tea da eta hostoak igurtziz gero oso aromatikoa. Hauek ertzean errebolutuak, tomentu zuriz estaliak eta "estuak" izaten dira. Lorea, 5-15 kapituluz osaturiko infloreszentzia izaten da; hori bizi eta distiratsua. Landare honen izenak adierazten duenez, oso nekez zimeltzen da. Normalean, oboidea eta ilegabea da, eta zenbaitetan oinean ilea du. Maiatetik abuztura bitartean loratzen da.

Fruitua (akenioa) berriz, arrena izaten da; batzuetan guruin zuri ugariz hornitua eta normalean distiratsua.

Landare hau isurialde mediterranean eta Europako mendebaldean dago banatuta; batez ere, artadi, abarizti eta erkameztien ordeko sastrakadietan zein harritza, duna eta hareatzetan. Oro har, zona lehor eta harritsueta bizi da. Beraz, Euskal Herriko zona askotan banaturik dago, 0-900 metro bitarteko altitudetan.

Betibizi horia, "iraunkortasunaren" eta "leialtasunaren" adierazletzat hartu izan da eta bere loreekin koroak egin izan dira. Sendabelar gisa ere erabili da, antiseptiko eta desinfektatzaile modura gargarismoak egiteko. Halaber igurtziz belarriko mina sendatzeko. Loreak diuretiko eta febrifugoak direla diote.



# Eguzkiaren lagun mina... Betibizi horia

Joxepo Terés

## FITXA TEKNIKOA

### Betibizi horia

**Familia:** konposatuak

**Espezia:** *Helichrysum stoechas*

**Banaketa:** banatua

**Habitata:** sastrakadi, itsaslabar, harritza eta dunetan

**Sendabelarra:** bai

